




**Altzoko Handia eta Kutixiren gezurrak**

ISBN: 978-84-9109-326-8

Saila: Altzoko Handia, 1

**Altzoko Handia eta Kutixiren pianoa**

ISBN: 978-84-9109-329-9

Saila: Altzoko Handia, 2

**El Gigante de Altzo y las mentiras de Kutixi**

ISBN: 978-84-9109-336-7

**El Gigante de Altzo y el piano de Kutixi**

ISBN: 978-84-9109-337-4

Testuaren egilea: Koldo Izagirre  
Irudien egilea: Irrimarra (Karmele Gorroño eta Irene Irureta)  
Orriak: 32  
Salneurria: 15 €

Aurkezpen ekitaldia, 2018ko azaroak 7

## ALTZOKO HANDIA ETA KUTIXIREN GEZURRAK ALTZOKO HANDIA ETA KUTIXIREN PIANO

Bi protagonistek osatuko duten bildumatxoaren lehen bi aleak.

Duela zazpi bat urte, David Azurza musikariak antzerki-opera bat egiteko ideia izan zuen, Altzoko Handia gaitzat hartuta. Koldo Izagirreri eskatu zion libretoa. Operak ikusgarritasuna eman zion artean ahaztu samarra zen erraldoiaren figurari. Altzoko Udalak Handiaren zirkuitu bat muntatu zuen, panel informatiboekin, bertako semea zenez. Lan horretan, Euskal Herrian ezezagunak ziren Handiaren marrazkiak azaldu ziren, eta hainbat datu berri. Ondoren hain saritua izan den luzemetraia ikusi ahal izan genuen...

Orain ipuinetan daukagu Altzoko Handia, haurren zein helduen gozagarri.

Ipuinok ez daude oinarrituak datu historikoetan: Handia ez da antzina bizi izan zen norbait, gaur egun batetik bestera dabilen pertsona apal eta sentikorra baizik. Haserretzen ere badaki ordea. Haserretzeko gaiak Kutixi izeneko neskato txiki batek ematen dizkio. Kutixi, egia esan, manipulatzailerik samarra dugu, eta bere kapritxoak lortzeko lagun ezin hobea du Altzoko Handia, batzuetan negar egiten badu ere beste batzuetan mundua jateko gosea sortzen zaionez.

Istorioko fantastikoen barruan sailka litezkeen arren, ipuinon mamia ez dago anekdotan, anekdotaren inguruko jarreretan baizik: gizartearen eta gizartearen normaltasunean sartzen ez direnen artekoa da gatazka. Kutixi ez baita diziplina erraz onartzen duenetarikoa, eta Handiak, handia izateagatik, besterik gabe, ikara sortzen baitu. Bikote bikaina arazoak sortzeko.

Bi kontabide edo bi narrakera dauzkate Altzoko Handiaren eta Kutixiren ipuinok, irudiena da bata eta pertsonaien solasena da bestea. Irudiek, izan ere, ezin hobekiago aurkezten dute egoera orriz orri, istorioaren interpretazio libre eta osagarrian. Solasak zorrotzak dira. Errimatuak zenbaitetan, tarteka kopla txikiak dituztela kantagarri.

Testuak Koldo Izagirrerenak dira.

Irrimarra marka osatzen duten Karmele Gorroño eta Irene Iruretaenak dira irudiak: ederrak, ederrak, ederrak...